

## **KONTROL MOZIOA**

### **Hizkuntza irizpideen jarraibiderako neurri prebentiboak direla-eta**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Euskarari dagozkion eta indarrean diren araudi eta planek ezarriak dituzten hizkuntza irizpideak etengabe urratzen ari direla lekuko izan gara. Hilero, udal dinamikaren baitako prozeduren bidez, urraketa horiei dagozkien informazio eskaera, berri emate, interpelazio, galdera eta abar egin ditugu; eta, horien ondorioz ere, Udalbatzak kontrol mozio ugari onartu ditu.

Udal Gobernuak, publikoki adierazi duen bezala, irizpideok zaindu eta betearazteko prestutasuna duenez gero, ezin da ulertu zergatik hilero-hilero suertatzen diren egoera hauek guztiak. Horretaz kezkatuta, EH Bildutik interpelazioa aurkeztu genuen ikuspegi prebentiboan galdegaia jarriz, alegia, euskararen erabilerari begira Udaleko planek ezartzen dituzten hizkuntza-irizpideak betetzeko neurriak garaiz hartzeko gabezien arrazoietan arakatu nahian. Finean, argi baitago baliabideak edo neurriak falta direla, erremedioak jarduerak burutu aurretik jarriak izan daitezten.

Joan den urtarrilaren 14an zinegotzi ordezkariak, Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean bertan egoterik izan ez zuenez, aurkeztu zitzaion interpelazioari erantzun idatzia eman zion. Agian bertan argitu ezin izanaren ondorioak dira Udalbatzara ekarritako honako hauek, baina emandako azalpenetan oinarrituta, errealitate berriak azaleratu direla antzeman dugu:

Zinegotzi ordezkariak hitzez hitz dioenez “Funtzionatzeko modu berbera du Euskara Zerbitzuak orain eta plangintza aldiaren hasieran”. Hori hala bada, galdera da zer aldatu den, beraz, etengabe adibideak aurkitzeko. Euskara zerbitzuko teknikariek, eta beraiekin batera departamentuetan gai hauez arduratzen diren teknikariek, egiten duten lanen berri emanda, badirudi lana betiko moduan egiten ari dela. Beraz, eremu teknikoan aldaketarik ez bada, gakoa eremu politikoan dagoela ondorioztatu beharko dugu.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala arduradun politikoek aldez aurreko neurriak hartuko dituztela euskararen erabilera normalizatzeko bidean eta aurrera-urratsak emateari begira, indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen betetze maila ziurtatzeko.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko bozeramailea